



URTEKO KONTU BATERATUEN AUDITORETZA INDEPENDENTEAREN TXOSTENA

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiari:

1. IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN (Mankomunitatea) eta horren mende dagoen IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SA sozietatearen (Sozietatea) urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu; horien barnean daude 2009ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, eta galera zein irabazien kontu bateratua, ondare garbi bateratuan egondako aldaketen egoera, eskudiru bateratuaren fluxuen egoera eta data horretan bukatutako ekitaldiari dagokion memoria bateratua –horren formulazioa Mankomunitatearen administratzaileen ardura da–. Gure erantzukizuna da iritzi bat azaltzea urteko kontu bateratuen multzoari buruz, normalean onartzen diren auditoretza arauekin bat; horretarako, hautazko proben bitartez, urteko kontu bateratuak justifikatzeko ebidentzia aztertu behar dira, baita beren aurkezpena, aplikatutako kontu-printzipioak eta egindako estimazioak ebaluatu ere:

2. Merkataritzako legeriarekin bat, administratzaileek honako hauek aurkezten dituzte: balantze bateratuaren kontu-sailak, galera eta irabazien kontu bateratua, ondare garbi bateratuaren aldaketen egoera, eskudiru bateratuaren fluxuaren egoera eta memoria bateratua; horrez gainera, aldera daitezten, 2009ko ekitaldiaren zifrekin batera, aurreko ekitaldiarenak ere aurkezten dituzte. Gure iritzia da, bakar-bakarrik, 2009ko ekitaldiaren urteko kontu bateratuei buruzkoa. 2009ko maiatzaren 13ko datarekin, 2008ko ekitaldiaren urteko kontu bateratuei buruzko gure auditoretza txostena eman genuen, eta han iritzi bat agertu genuen, zenbait salbuespen aipatuta.

3. Honekin batera doan memoria bateratuaren 20. oharrean azaltzen denaren arabera, 2009ko urtarrilean Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak hein batean onartu zituen eskualdeko hiri garraioaren zerbitzuaren enpresa kontzesiodunaren eskariak; eskari horiek biltzen zituen errekurtsua Mankomunitateak 2006ko ekitaldian hartutako zenbait akordioaren aurka jarri zen, honako bi eskari hauek aintzat ez hartzeari lotuta: Eskualdeko Hiri Garraioaren zerbitzuaren emakidaren oreka ekonomikoa berrezartzea, eta bidaiarien kopuruari buruzko konpromisoa berrikustea. Kontzesiodunari eman beharreko ordainsariaren zenbatekoa epaia betearazteko fasera atzeratu zen –gaur egun bidean dago hori–, eta Mankomunitatea demanda-egileak bideratutako demandaren aurka agertu zenez, txosten hau eginiko datan ez da posible zehaztea Epaitegiaren epaiaren ondorioz erakundeak ordaindu beharreko pasiboa. Bestalde, 2008ko



abuztuan, Nafarroako Administrazio Auzitegiak erabaki zuen ez onartzea kontzesiodunak Mankomunitateak hartutako ebazpenen aurka jarritako errekurtoa –2004. eta 2006. urteen bitarteko ekitaldietan eskualdeko hiri garraioan emandako zerbitzuen likidazioei lotuta–, eta ez da ezagutzen ez-onartze horren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtoa. Egun erabaki gabe dago 2007koaren aurka jarritako errekurtoa, eta 2009ko abenduaren 31n ez zen egina 2009ko ekitaldirako zerbitzu horrengatik eman beharreko ordainsarien behin betiko likidazioa. Arestian aipatu diren likidazioen aurkako errekurso horietan enpresak alderdi nagusietan berriz ere egiten baititu hein batean onartu zaion errekursoan bildutako erreklamazio ekonomikoak, une honetan ere ez da posible zehaztea likidazio eta errekurso horien azken emaitzak pasibo gehigarri nabarmenak ekarriko ote dizkion Mankomunitateari.

4. 2007ko ekainaren 27an Epaitegi Gorenak epaia eman zuen zenbait erakundek Hiri Hondakinen Zatikatzeko Organikoa tratatzeko instalazioak eraikitzeke obren aurka jarritako errekurtoei lotuta. Epai horren ondorioz Sozietateak instalazio horiek eraitsi behar ditu, eta honekin batera doan 2009ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratuan “Zorrrak epe laburrera” epigrafean erregistratuta mantendu behar da; guztira, 3.275.493 euro dira –horiek dira aktibo horiei lotutako aurreko ekitaldietan kobratutako kapitaleko dirulaguntzak (honekin batera doan memoria bateratuaren 14. oharra)–. Beste alde batetik, egindako inbertsioaren zati batek –2.916.528 euro– bere ibilgetuan jarraitzen du erregistratuta (honekin batera doan memoriaren 5. eta 20. oharra); izan ere, aprobetxagarritzat jo izan da egin behar diren saneamendu inbertsioen esparruan. Txosten hau egin den datan, Sozietatea behar diren tramiteak egiten ari da inbertsio horien izaera aprobetxagarria ziurtatzeko helburuarekin. Hartara, 2009ko abenduaren 31n dagoen ziurtasun eza kontuan hartuta, ez dakigu aktibo horiek egingarriak diren data horretan erregistratutako zenbatekoetan.

5. Gure ustez, arestiko 3. eta 4. ataletan azaldutako jakintasun ezaren azken emaitza ezagutu ondoren egin beharreko doitzek alde batera utzita, 2009ko ekitaldiaren urteko kontu bateratuek adierazten dute –honekin batera doaz–, alderdi nabarmen guztietan, IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN eta IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SA enpresaren ondare bateratuaren eta finantza egoera bateratuaren irudi zehatza, baita beren operazioen emaitza bateratuak, ondare garbi bateratuan izandako aldaketak, eta data horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion eskudiruko fluxu bateratuak; halaber, be-




- 3 -

harrezko informazioa –eta nahikoa– dute egoki interpretatzeko eta ulertzeko, aplikatu beharreko Espainiako araudian normalean onartzen diren printzipio eta arauekin bat; azken horiek uniformetasuna izanda, gainera, aurreko ekitaldian aplikatutakoekin.

6. Honekin batera doan 2009ko ekitaldiaren kudeaketa txosten bateratuak barne ditu administratzaileek egoki jotzen dituzten azalpenak Mankomunitatearen eta Sozietatearen egoerari buruz, horien negozioen bilakaerari buruz, eta beste kontu batzuei buruz, eta ez da urteko kontu bateratuen zati osagarria. Egiaztatu dugu kudeaketa txosten bateratu horrek duen kontu informazioak bat egiten duela 2009ko ekitaldiaren urteko kontu bateratuenarekin. Auditore gisa dugun lana da kudeaketa txosten bateratua egiaztatzea paragrafo honetan bertan aipatutako helmenarekin, eta ez du barne hartzen Mankomunitatearen eta Sozietatearen kontu erregistroetatik etorri ez den informazioa aztertzea.

Betean Auditoría, S.L.P.

(R.O.A.C. erregistroan inskribatutako sozietatea; zk.: S-1354)



José Ignacio Miguel Salvador

2010eko apirilaren 20a